

IJITOEN PATRIARKAREKIN SOLASEAN

·Zuek bai jakin!: Arantza Laskurain ·Erreportajea: Hemen ere argazkiak biluzik! ·Izerdi
patsetan: Mikel Balenziaga ·Boteprontoan: Xabier Zaldua

Herri Aldizkaria Otamotz

2008ko
abendua
142. alea



Herri Aldizkaria
Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!

ESKOLA PUBLIKOA



*Urteak eman ditu
hainbat berri mota
guk pakeari jarri
nahi diogu nota
klabe horretan urte
berri on bat opa
egin esperantzaren
burbuiletan topa*



J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
DBH-BATXILERGOA (A,D)
Erdi Mailako Heziketa Zikloa
"Erizaintzako Zaintza Osagarriak"
Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu



Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldia **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldia **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 **Hilabete honetako gaia**
Ijitoen patriarkarekin solasean
- 10 **Argazki zaharra**
- 12 **Komikia / Egurra partitzen**
- 13 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Gizon-proba ikustera joateko asmorik ba al duzu?
Parte hartuko al zenuke?
- 14 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 16 **Klik eta klik**
Iñaki Lizarralde
- 18 **Zuek bai jakin!**
Arantza Laskurain
- 22 **Erreportajea**
Hemen ere argazkiak biluzik!
- 24 **Gure gomendioa**
- 25 **Izerdi patsetan**
Mikel Balenziaga
- 28 **Gure aholkuak**
- 29 **Literatura**
- 30 **Boteprontoan**
Xabier Zaldia



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Ijitoen patriarkarekin solasean

Ijitoak aspaldi heldu ziren Euskal Herrira, baina gehienok apenas dugu harremanik beraiekin eta errezeloz begiratzen zaie. Urretxu eta Zumarragako patriarkarengana jo dugu euren bizimoduaz eta ohiturez hitz egiteko eta topikoei buruz duen iritzia ezagutzeko. Anjel Dual Donostian jaio zen, baina duela 10 urte pasatxo Urretxura etorri zen eta ez litzatekeela inondik inora joango esan du.

Anjel Dual, bere etxean. Argazkia: Gotzon Aranburu.



Nondik zatozte ijitoak?

Ijitoa Moisesen garaikoa da. Judatik 12 tribu atera ziren eta, diotenez, bat galdu egin zen: gurea. Ondoren mundu osoan zabaldu zen. Beti nomadak izan gara. Batzuk India aldera joan ziren eta besteak Europara. Hori dela eta, ijito ilehoriak ere badaude. Hona Errege Katolikoaren garaian etorri ginen. Puta seme galantak ziren! Ez genuen ezer, baina azkarrak ginen eta erreinuan oso ondo kokatuta zegoen jendea engainatzeko gai ginen. Erregina beldurtu egin zen eta gure hizkuntza debekatu zuen. Hori dela eta, gehienok ez gara ijitoen hizkera hitz egiteko gai.

Zer lan egiten zenituzten garai hartan?

Galdarak eta urrezko piezak konpondu, adibidez. Garai hartan dirua genuen, oso langileak baikin. Herrietan arazok zeudenean, ordea, guri botatzen ziguten errua. Hori erregearen babesarekin egiten zen eta komunitate batetik bestera bidal-tzen gintuzten. Horrek gaurdaino iraun du. Nire osaba bati, guardia zibilek zalditik jai-tsi bezain pronto eltzeari ostikoa eman ziotela gogoratzen dut. Hori egitea ohitura zuten. Oso krudelak izan dira gurekin.

Zein da zuen kulturaren ardatza?

Errespetua funtsezkoa da. Gure arau nagusia senitartekoei errespetua da, gurasoei eta adinekoei batez ere. Haurrak zaintzea ere funtsezkoa da guretzat eta janaririk ez duenari gurea ematen diogu. Bestalde, toki guztietan buruzagi bat dugu eta denen babesa du. Gure kultura asko galdu da, ordea. Drogak kalte handia egin digu eta dagoeneko ez dugu ospe txarra gainetik kentzerik. Baina... telebistan makina bat hilketaren berri ematen digute,

egunero emakume bat hiltzen dute... Ijitoak oso gaiztoak omen gara, baina ez ditugu emakumeak eta haurrak hiltzen. Ekintzei begiratu behar zaie, baina jendeak ez gaitu ulertzen eta ez du gure kultura errespetatzen. Ezin digute gurea ez dena inposatu. Baina... ijitoak gauden tokian paioek ez dute arazorik izango. Gurea zaintzen dugu eta arazoak ez egoteaz arduratzen gara: ijito gaiztoaren bat datorrenean bota egiten dugu eta hori inork ez du baloratzen.

Nola ikusten dituzue paioak?

Hemen oso ezaguna naiz eta mundu guztiarekin ondo moldatzen naiz, baina beti besteek baino ahalegin handiagoa

“Bizitza osoa lanean

daramat. Ijitoak alfer

ospea dugu, gure

herriarentzat lotsagarria

izango naiz nonbait...”

egin behar dugu onespina lortzeko. Nekatuta nago. Naizen bezalakoa naiz, gauza onak eta txarrak ditut eta egunero hobia izateko ahalegina egiten dut. Gu eta paioen artean ez dago alde handirik, baina elkarbizitza hobetzeko guztion borondatea beharrezkoa da. Udalekin ere arazoak ditugu. Eskoletan berehala begiralea jartzen diete gure seme-alabei, kontrolatzeko. Bihurrikeriaren bat egiten badute, berriz, sekulako zigorrak ezartzen dizkiete. Ez gaituzte ezagutzen eta hanka sartzen dute. Ezin digute exijitu:

integratzea nahi badute, gurea errespetatu behar dute.

Zuen seme-alaben emaitzak, askotan, besteek baino kaxkarragoak dira.

Gurasoen izaeraren arabera da. Nik haurrek ikastea eta aurrera egitea nahi dut, baina eskoletan gure kultura eta balioak ditugula kontuan hartu behar dute. Hemen gaude, ezin zaigu itzala egin. Neure burua hemengotzat dut eta behin-goiz konfiantza eman behar zaigula uste dut. Dena den, gurasook egun guztia lanean ematen dugu eta udalek haurrentzako toki bat ireki beharko lukete.

Non jaiotzen zinen?

Donostian. Egian bizi ginen. Nirea da Donostian bizitzen gelditu zen lehen ijito familia eta sekula ez dugu arazorik izan. Errenterian ikasi nuen, baina lan egin beharra zegoen eta 13 urterekin zaharra goa nintzela esaten nuen lan egin ahal izateko. Bizitza osoa lanean daramat. Ijitoak alfer ospea dugu, gure herriarentzat lotsagarria izango naiz nonbait...

Nondik nora ibili zara lanean?

Bakailaoarekin, txatarrarekin, merkatuetan, autoak saltzen... ijitoon lanetan. Ez dugu bestelakoetan lan egiteko aukerarik. Nire seme bat lanetik bota zuten ijitoa dela jakin zutenean. Egun emazteak eta biok mantelak eta oihalezko bestelako gauzak saltzen ditugu: dendetan, norbanakoei... Autoak ere saltzen ditut. Ahal dudana egiten dut. Zalditegia ireki nahi nuen, herriko haurrentzat oso ona izango bailitzateke, baina ez dut inongo babesik jaso. Natura gustuko dugu, beti nomadak izan baikara.

Emazteak ere lan egiten du, beraz, marxista ospea duzuen arren.

Emakumeak egun osoan etxean ditugula esaten da eta hori gezurra da. Elkartu

Bere etxearen kanpoaldean, Urretxuko Abenidan. Argazkia: Gotzon Aranburu.



eta tabernara zer edo zer hartzera joaten dira eta!

Paioekin ezkontzea ondo ikusten al duzue?

Garai batean gaizki ikusia zegoen, bai euren artean eta baita gure artean ere. Lehen paio batekin bizi zen emakumea komunitatetik botatzen zen. Egun ez da halakorik gertatzen. Hitz egin dezagun argi: guraso paioek ez dute euren seme-alabak ijitoekin joatea nahi. Eurentzat onena nahi dugu. Baina zer da onena? Probatu beharra dago. Gure artean ere onak eta gaiztoak daude. Paioak pasa-tzen ari direla iruditzen zait, emakume asko hiltzen ari baitira. Ez dut telebista pizten, hilketak besterik ez baitira ikusten.

Zuen artean ere ba al da banaketarik?

Senitartekoak, adinekoak eta patriarkak arduratzen gara horretaz. Korapilatsua da. Kasua aztertzen da eta, ondo ikusten bada, banantzea onartzen da. Emakumea bigarrenkoz ezkondu daiteke, baina lehe-

nago senar ohia ezkondu behar da. Seme-alabak amarekin joaten ziren, baina orain bien eskuetan uzten dira.

Zer iruditzen zaizue homosexualitatea?

Ez dugu ondo ikusten, baina errespetatzen dugu. Izan ere, bi pertsonen oniritziarekin ematen da.

Erlijoari dagokionez, ebanjelistak zarete.

Guztiok argi dugu zeruan esku boteretsu bat dagoela eta oso fededunak gara, paioak baino gehiago. Hauek nola bizi diren ikustea besterik ez dago. Eliza katolikoak duen dirutzarekin, zenbait lagun gosea ase daiteke? Fededunek gehiago eman beharko lukete eta Caritasek berak beharra duen jendea ezer gabe utzi izan du. Donostiako ijitoen komunitatean ere ez dut sinesten. *Monchin* delakoa iruzurgile handia da nire ustez. Garai batean ijitoen burua izan zen, baina bota egin zuten. Hitz jario handia du eta orain sekulako negozioa muntatu du bere familiaren mesedetan.

Aprobetxategi ospea ere baduzue.

Arrazismo kontua da. Etxean 15 lagun elkartzen gara askotan eta erosketak egitera joaten garenean bi karrotxo betetzen ditugu. Jendeak gaizki begiratzen digu. Lagun gutxiagoko familiek baino gehiago erostea normala da! Janaria erosteko besterik ez dugu irabazten. Gainontzeko guztia mailegua eskatuta erosi dugu, beste guztiek

“Jendea niregana etortzen zen laguntza eske eta nazkagarri asko bota ditugu herritik”

bezala. Ez naiz udaletxetan eta gainontzekoetan laguntza eskatu zalea. Gazteei lana eman beharko liekete. Nik ez dut dirulaguntzarik, e! Auto bat erosi nuen saltzeko asmoarekin eta laguntza kendu zidaten. Anton Arbulurekin, ordea, oso harreman ona nuen.

Etxean 15 lagun elkartzen zaretela esan duzu. Izan ere, zuen etxeetako ateak beti zabalik egoten dira.

Beti dugu zer edo zer eltzean datorrenari emateko.

Bitxiak asko atsegin dituzue.

Esan bezala, garai batean urrearekin lan egiten genuen. Gainera, asko ez dugunok, itxurakeria zaleak gara. Baina hori ez da ijitoon artean bakarrik gertatzen. Dena den, ni ez naiz oso bitxi zalea.

Senitarteko eta lagunekin, semearen ezkontza ondorengo festan.



Poliziarekin arazoak izan ohi dituzue.

Ez gaituzte pertsona arruntatzat hartzen. Ijitoak bilakaera handia izan dugu. Ez gara gaiztoak, baina animalia gosez akabatzen uzten baduzu, artaldea erasokodun. Baina ijitoa ez da txarra. Gure arau nagusia senitartekoei errespetua da, gurasoei eta adinekoei batez ere. Haurrak zaintzea ere funtsezkoa da guretzat eta janaririk ez duenari gurea ematen diogu.

Politika interesatzen al zaizue?

Batzuek eta besteek diotena entzutea gustatzen zait. Bere garaian ijito askok Anton Arbuluri eman zioten botoa Zumarragan, lagundu egingo zigula agindu baitzigun. Bere alderdia gustuko dut, gainera. Dena den, Arbuluk Olaarte base-ri ondoan alokatuta dudana lursailera ur hornidura eramango zuela esan zidan, baina oraindik ez dut lortu. Egun dena sinatu beharra dago, baina gu hitzekoak gara. Engainatua sentitzen naiz eta egun-ko alkatearekin hitz egin nahi dut. Arbuluk

Udalaren abokatuarengan jotzeko esan zidan eta honek egitasmorik aurkeztzen ez badut urik ez didatela jarriko esan zuen. Familiarekin egoteko tokia besterik ez da! Izan ere, ospakizun zaleak gara eta gure familiak handiak dira. Ezin gara etxean elkartu. Zergatik ez zait urik ematen? Ordaindu egin nahi dut!

Aisialdian familiarekin eta lagunekin elkartzea atsegin duzuela esan duzu. Zer gehiago egiten duzue?

Mutikoen futboleko jokatzeko dute, nik irakurtzea atsegin dut... Musika, dantza eta eskulanak ere asko gustatzen zaizkigu.

Bestalde, Urretxu eta Zumarragako patriarka zara. Horrek ere denbora kenderduko dizu.

Urte dezente daramatzat dagoeneko patriarka lanean. Jendea niregana etortzen zen laguntza eske eta nazkagarri asko bota ditugu herritik. Herriaren alde lan handia egin dut eta inork ez daki hori.

Zein da patriarkaren lana?

Ijito komunitatea zaintzea eta paioekin

bizikidetzat ahalik eta onena ahalbidetzatzea. Herrian paioak eta ijitoak elkartuko lituzkeen ekimenak abian jartzea ondo legokeela iruditzen zait. Bestalde, ijitoen ordezkaria naiz eta paio batek gutako batekin arazoren bat badu nigan jo dezake laguntza eske. Nire lana batzuetan arriskutsua da. Ez dut saririk nahi, baina bai errespetua eta onespena. Ertzainek baino lan handiagoa egiten dut eta!

Nola hautatzen da patriarka?

Komunitatean ondo ikusia dagoen ijitoa izan ohi da. Jendeak beregana aholku eta laguntza eske joateko ohitura hartzen du eta, besterik gabe, patriarka bezala hartzen dute.

Noiz eta nolatan etorri zineten?

1997an. Donostian estima handian ninduten, baina nekatuta nengoen. Jende asko etortzen zen nigan eta lasaitasuna behar nuen. Hasieran gaizki pasatu nuen hemen, inork ez baininduen ezagutzen eta denek arraro begiratzen baininduten. Sekulako depresioa hartu nuen: 40 kilo hartu nituen eta oraindik ez ditut kendu. Denboraldi baterako etorri ginen, baina gelditu egin gara.

Betirako geldituko al zarete?

Hori ez dago esaterik, baina orain ez nintzateke inondik inora hemendik joango.

Zeintzuk dira zure ametsak?

Nire seme-alabak ezkondu eta ikusita nahi ditut. Bestalde, emaztearen osasunak hobera egitea eta behingoz lana egiteari uzteko aukera izatea nahi dut. Baita guztion artean errespetu handiagoa egotea ere.

Noiz arte izango zara patriarka?

Nik zer dakit bada... Beharbada ministro izatera helduko naiz!

Zeresan handia eman duen ezkontza

Dual familiak zeresan handia eman du azkenaldian. Izan ere, urrian bere semea ijitoen erritua jarraituz ezkondu zen eta *ETB2k* ezkontzari buruzko erreportajea eskaini zuen. Senar-emazteak lehengusiak dira eta bikotea gurasoen ekimenez sortu zen. 12 eta 15 urte zituzten lehenengo aldiz elkartu zituztenean. Gutxi ibili ziren elkarrekin, ez baitzuten elkar ulertu. Hiru urte ondoren, indarrez maitemindu dira.

Ezkontzara senitarteko asko etorri ziren: Madriletik, A Coruñatik, Santanderretik... Herriko ijito familia guztiak eta paio batzuk ere gonbidatu zituzten. Ijitoen ezteien ezaugarri nagusia zapiaren proba da: emaztegaiek ezkontzara birjina heldu direla erakutsi behar dute. Gainontzekoan, ezkontza batzuk eta besteak antzekoak dira. Ijitoek ere ahalegin handia egiten dute ahalik eta dotoreen janzteko eta sekulako banketea eskaintzeko.

Gurasoek eta aita-ama pontekoek ordaintzen dituzte gastuak eta gonbidatuak egoki deritzoten diru kopurua eta etxerako balio duten opariak ematen dituzte: izarak, baxera... Ezkonberriek bidaia egiten dute, baina diskoteka musikak ez du tokirik ijitoen ezteietan. Euren diskoak jartzen dituzte, batek organoa jotzen du, besteak gitarra...


Paioen festak txiki gelditzen dira Dual familiakoek antolatutakoaren ondoan: parrandak bi egun iraun zituen. Ezkontza ostiral arratsaldean izan zen, Ezkio-ltsasoko Labekoa jatetxean. Bertan zintzotasun proba egin zen eta emaztegaia ezkontzara birjina heldu zela ziurtatu zenean, sekulako zalaparta sortu zen. Jatetxeko zorua petaloz, almendraz eta gozokiz bete zen eta musikak eta dantzak lokala hartu zuten.

Ondoren jangelara igo ziren eta ezkongaiak eraztunak jarri zituzten emaztegaiairen aitaren aurrean. Azken hau artzain ebanjelista da. Parranda goizeko ordu txikietara luzatu zen. Azkenik, hurrengo egunean senitartekoak eta lagunak Dual familiak Olaarte baserriaren ondoan alokatuta duen lursailera joan ziren. Bertan ohiko sardina-jana ospatu zuten. Emaztea haurdun dago jada.

Anjel Dual oso pozik dago. "Azken hilabeteak oso gogorrak izan dira, oso gazteak baitira eta gurasook arduratu behar izan baikara guztiaz. Gure erritok jarraitzearen alde nago, baina apur bat helduago ezkontzea gustatuko litzaidake". Dena den, ahaleginak merezi izan duela uste du. "Dena ondo atera da, baina Farruquitori gertatu zitzaion berbera gertatu zaigu: 200 gonbidatu genituen eta 300 etorri ziren". Ez da harritzekoa: bertaratutako kazetariak ere afaltzera gonbidatu zituzten!



Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



INKESTAK

Antioko interpretazio zentroa egiteko zein da zure ustez lekurik aproposena?

- Elizalde baserria: %81
- Zumarragako Udalak proposatutakoa: %0
- Ez bata, ez bestea: %19

Euskadi ala Euskal Herria. Zein da euskal selekzioarentzat izen egokia?

- Euskal Herria: %79
- Biak balekoak dira: %11
- Euskadi: %10

IRAKURRIENAK

1. Mikel Laboa hil da.
2. Gaur hasi da bi urretxuarren aurkako epaiketa Parisen.
3. Arcelor Mittal enpresako lan egoera salatu dute sindikatuek.
4. Mikel Balenziagarekin elkarrizketa.
5. Bi pertsona atxilotu eta 17 kilo speed atzeman dizkie poliziak.
6. Uholde arrisku handiagoa Urolan.
7. Triatlotoiko taldea sortu dute Urola kirol elkartearen barruan.
8. Concetta Probanzari elkarrizketa egin diote *Argia* aldizkarian.
9. Arcelor Mittaleko ELA, LAB eta UGTri erantzun dio CCOO sindikatuak.
10. Fernandezek eta Montesek irabazi dute *Emakume Pilotari* torneoa.

ALDIZKARIA

1. Marijo Etxeberria (Boteprontoan/141. alea).
2. Joan Goierri Garaira!!! (Egurra partitzen/141. alea).
3. Jose Ignacio Otano: Ez dago bera bezalakorik (Zuek bai jakin!/141. alea).



90eko hamarkada hasiera

Urretxuarrak eta zumarragarak Alderdi Egunean

Hona hemen duela 15 bat urteko EAJren Alderdi Egunera joan ziren urretxuar eta zumarragar batzuk Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiarekin ateratako argazkia: Mari Carmen Barrio, Anto Arrizabalaga, Jose Antonio Ardanza, Arantxa Aristi, Juan Luis Peñagarikano, Jesus Iturbe, Inazio Odriozola eta Juan Mari Balenziaga.



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
óptica

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84


Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

Lorea

Pinturak - Etxeko apaintaketak
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52



Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



natural optics
URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINITZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



ALTZARIAK
MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU



TABERNA

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com



Construcciones

MENDIOLA

Labeaga, 9 Tf: 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

AROTEGIA

Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



alejandra albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

Herri Aldizkaria

Otamotz


TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO
Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



BIZI IZAN NAIZ. ITZAL, ZEMUNTU ETA IZAKI EZBERDINEN ARTEAN
 BIZIRAUN . MUSIKA, OLIOA ETA BASELINA EZTARRITIK
 HESTE BARRUTIETARAINO SARTZEN IKUSI ETA SUFRITU.
 GRINA, DESIDA BORROKATU NOIZBAIT.
 ZALANTZETATIK ETENGABE ZINTZILIKATU
 IZAN NAIZ ASKOTAN...ETA ORAINDIK,
 ORAINDIK EZ DUT AMODIOA EZAGUTU.
 TRISTEA HILZORIAN DAGOEN
 86 URTEKO AGURE BATENTZAT
 eztabide

egurra partitzen

Jon Torner
 Jon Ormazabal



Urteko gizona

Hamaika hilabetetan ia erantzunik jaso gabe egurra partitzeaz nazkatuta, gabonetako espirituaz edo dena delakoaz jabetuta, «urteko gizona» –inor asaldatu aurretik emakumea izan zitekeen berdin berdin baina *pitudoa* atera zaigu, ea datoren urtean– saria banatzea otu zaigu atal honetako ardura dugun bi majaderooi.

Ingurua begiratu eta berehala Zumarragako alkate berria etorri zitzaigun bioi burura, herriotan halako karrera meteorikorik egin duen beste inor ez baitugu ezagutzen. Hala ere, berehala baztertu genuen aukera hau, izan ere, lehendik ere nahikoa ordainsari jasotzen du gure udaleko zorrotik eta gainera, bere ibilbideak, hobe edo okerragoa, ez du ezer izan txundigarritik. Pentsa, sarietarako hautagai irmoa zen Mikel Lizarralde bidenteraren dohaiak izan gabe, aspaldi aurreratu genuen txoko honetan bertan egingo zuena; hitz asko, itxura gehiago eta lehen aukeran zumarra-

tar askoren ordezkariak udaletxetik kanpora bidali, kale gorrian utziz. Denon hobebearrez, salto egiteko aukeratu duen tranpolinak urik baduela ondo begiratu ote zuen behintzat!

Kandidato gehiagoren bila abiatu eta, nahiko primarioak izango garela izango da, futbola eta Badiola tsunamia gure tertulia eta irri gehienen iturri izan direnez, «Realzaletasunaren profeta berriari» emango diogu saria.


Meritoen artean, zuritoez gain tea ere edan daitekeela, begiak urratuta dituzten guztiak japoniarrak ez direla erakustea, norberaren gezurrak sinestea gaixotasun bat izan daitekeela baieztatzea eta jende askori DVaren aurrean begiak zabaltzea –lastima futboletik at sartzen dizkiguten golez oraindik ere ohartzen ez gara–. Gainontzean, hemen ere arrazoi izateak pena ematen digu baina aspaldi esan genuen guk donostiar tiki hau, dirurik ez duen Piterman bat besterik ez dela.

Gizon-proba ikustera joateko asmorik ba al duzu?

Zuk zeuk parte hartuko al zenuke?



Claudio Caballero



Ez zaizkit halako kirolak gustatzen. Astakeria hutsa iruditzen zaizkit. Iaz banekien egin behar zutela, baina ez nintzen plazara joan. Zezenak hiltzea ere ez zait batere gustatzen. Niri giro ona eta armonia gustatzen zaizkit.

Begoña Larrañaga



Astakeria iruditzen zait. Ez naiz sekula ikustera joan, jardue-
ra horrek ez baitit ezer esaten. Egia esan, kirola ere ez dut
oso gustuko. Pilota bakarrik atsegin dut, baina telebistan
ikusten dut. Beste zaletasun batzuk ditut.

Garbiñe Izagirre



Iaz ez nintzen ikustera joan, nahiz eta bi taldeetan ezagunak
nituen. Sekulako indarra dutela iruditzen zait. Aurten, aukera
baldin badut behintzat, plazara joango naiz. Iaz ere, gustatzen
zait. Ea Urretxuk irabazten duen!

David Castellero



Ezagutzen dut kirol hau, iazko saioa ikustera joan bainintzen.
Ondo iruditzen zait halako probak antolatzea, hala jendeak
ordura arte ikusi ez dituen kirolez gozatzeko aukera baitu.
Gainera, ikusgarria iruditu zitzaidan. Parte hartzeko aukera
izango banu, arituko nintzateke.

Gaia: Bertso gorriak krisiari jarriak

Doinua: Bizkaiko aberatsak

Josu Aztiria



Hipoteka saltzaile
eta lur erosle,
bankero aberatsak
dabiltza eskale.
Diruz puztu dituzte
Gobernuek, bale!
Inoiz ez dute eman
pausorik debalde,
borrokatzen baitute
diruaren alde.

Hazkunde, merkatua
eta superabit,
orain arte ez zegoen
gubernuen beharrik!
Sozialismo berria
bankuen eskutik,
Estatuen laguntzaz
ez dabiltza alperrik...
Jaso duten diruaz
ez zen goseterik!

Adituen iritziz
dardarka zorua,
“orain da kontsumoa
pizteko ordua”.
Gehiegizkoa zela
ez zen sorburua?
Desagertuko gara
gu eta mundua,
aldatzen ez badugu
gizarte-eredua!

iritziz iritzi

Ibon Garmendia



Gure abherria

2008a nire sorterritik joateko erabakiaren urtea izan da eta *erbesteak* gure miseriak eta altxorrek deskubritzeko aukeraren bat edo beste eman dit. Horietako batzuk botako ditut jarraian, honengatik guztiagatik baten bati eztabaidarako zeresana emango balioke gustura geldituko nintzateke. Hasteko, euskaraz hitz egiten hasten naizenean niri inork ez dit antzematen nongoa naizen. Urolatar edota goierritar batek ahoa ireki orduko denok antzematen diogu zein parajetakoa den. Zergatik da gure herria gure hizkera bezain nortasun apalekoa? Arrazoietakoa bat hemen ia denok etorkinak garelako dela pentsatzen dut. Nire inguruan gutxiengoa da aitona-amonak herritarrak dituztenak, urrutiko lurraldeetatik hasi eta ondoko

bailaretako sustraiak baditugu ere, ia denok gara herri honetara etorritako langile etorkinen oinordeko. Garbi dago honela zailagoa izango da herriarekin biziki identifikatzea, ezta? Inguruko ia herri guztiek baino urguilu gutxiago dugu eta horrek askotan ez gaitu lehiakorrak egiten, ez kirolean, ez ekonomian... Krisi egoera honetara gure industria triste iritsi bada hein batean gure erruagatik izan da. Seguru nago ez garela horren herri matua izango ez dugulako bat-batean asko liluratzten, baina egia esan, bertute ugari sumatzen ditut nire inguruko jende ugariaren balore, parte-hartze eta lanetan. Horrelako gauzek egiten dute benetan gure herria erakargarri eta esan dezaket hori dela nik daramadan altxorra.

Zorionak eta urte berri on!!



SASIETA MANKOMUNITATEAK eguberri jai zoriontsuak opa dizkizue.

2009an ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.


Gogoratu, urtero bezala, jaien ondoren gabonetako **PINUEN BILKETA** egingo dugula konposta bihurtzeko.

Traste zaharren egunean atera behar dira.

www.sasieta.net



SASIETA
MANKOMUNITATEA



Herri Aldizkaria Otamotz


ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:



- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.
- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera: Zintzo-Mintzo elkartearen Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan) 20700 Urretxu
- Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu: otamotz@otamotz.com

ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT		OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT	
IZEN-DEITURAK		JAIOTZE DATA	
HELBIDEA		EHNA EDO NA	
TELEFONOA ETA E-MAILA		KONTU KORRONTEA	





Frantziako Tourra furgonetan: Loira herriko ibaiak eta gazteluak, Bretainia eta Normandiako paisaia ederrak pasatako gerren usainarekin konbinatuta, Alsaziako Bosgoetako mendi eta herri ikusgarriak, Alpeetara Cervino handia ikusteko asmoz, Marseillara Mediterraneoko lasaitasunaren bila eta, bukatzeko, etxea gertu sentitzeko, Pirinioak.

1. Etretat (Normandia). 2. Vignemale (Pirinioak).
3. Colmar (Bosgoak). 4. Bretainia.
5. Auto-karabana. 6. Relax (Marseilla).
7. Mediterraneoa (Marseilla). 8. Cervino (Breuil Cervinia). 9. Saint Michelle (Normandia).

Iñaki Lizarralde

Arantza Laskurain: Kontsumitzaileen zaindaria

Arantza Laskurain zumarragarrak Zuzenbidea ikasi zuen eta kontsumo gaietan aditua da. Eroski enpresako kontsumo zuzendaria eta Espainiako Kontsumitzaile Kooperatiben Konfederazioko presidentea da. Donostian bizi da eta asko bidaiatu beharra du, baina astebururo herrira etortzen da.

Zer esan dezakezu zure gurasoez?

Gauza onak besterik ez. Niretzat familia oinarritzko zutabea da bizitzan eta zorte handia izan dut: gurasoek dugun onena ateratzen lagundu digute hiru ahizpoi. Balore zehatz batzuk irakatsi zizkiguten eta nahi genuen bizimodua aukeratzen utzi ziguten. Bestalde, nire familiak sentibiltatea du eta horrek gozatzeko eta elkarrekin gauza asko egiteko aukera ematen du.

Zertan lan egiten zuten zure gurasoek?

Aita jostuna zen. Legazpi kalean gizezkoen arropa denda ireki zuen eta 1968an emakumezkoena ireki genuen Buscatarren etxean. Amak musika ikasketak egin zituen, baina aitari laguntzea erabaki zuen eta sekula ez zituen musika eskolak eman. Musika zaletasuna pasatu digu, batez ere niri. Ez dut horren inguruko ikasketarik egin, baina nire zaletasunik handiena da. Amarekin musika klasiko kontzertu askotara joaten naiz.

Arantza Laskurain, bere ahizparen dendar



Zure izebak irakasleak dira. Zugan eraginik izan al dute?

Familiaz ari naizenean, zentzu zabalean ari naiz. Nire familia gurasoek, ahizpek eta izebek osatzen dute. Izan ere, beti amaren ahizpekin bizi izan gara beti. Asko irakatsi digute eta betidanik kultura zaletasuna nabaritu dugu etxean.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Oso oroitzapen onak ditut. Mojen eskolara joan nintzen eta gero institutura. Niretzat Zumarraga funtsezko erreferentzia da eta oso argi dut bertakoa naizela. Asko bidaiatu beharra dut, baina familia eta jatorria gogoan ditut beti. Hori oso garrantzitsua da.

Joxe Mari Iparragirre Institutuan ikasi zenuela esan duzu. Izebak irakasle izatea berezia izan al zen?

Ez nuen hala sentitu, beti horrekin bizi izan bainaiz. Dena den, izeba Terek eskola eman zidanean apur bat gehiago kostatu zitzaidan klasean burua altxatzea. Arantxarekin egon nintzenean baino pixka bat helduagoa nintzelako izan zela uste dut.

Ondoren Zuzenbidea ikasi zenuen. Zergatik?

Letrak atsegin nituen, baina irakaskuntza ez nuen gustuko. Bestalde, ez nuen urrutira joan nahi. Hori dela eta, Zuzenbidea ikasi nuen. Bizitzaren ikuspegi orokorra eskaini zidala uste dut.

Non hasi zinen lanean?

Euskadiko kontsumitzaileen federazioan hasi nintzen eta Urretxun kontsumo bulegoa ireki genuen. Oso oroitzapen ona dut, lan talde bikaina bainuen. Gero Alsaziara joan nintzen, kontsumo alorreko masterra egitera.

Hasiera-hasieratik kontsumo arloan**aritu zara, beraz. Zergatik?**

Zuzenbidea ikasi nuenean oso argi nuen etorkizuna izango zuen esparru berri batean aritu nahi nuela. Zenbait alor azertu nituen eta azkenean kontsumo zuzenbidea hautatu nuen. Garai hartan oso gutxi garatua zegoen.

Zergatik joan zinen Alsaziara?

Bertan ari ziren lantzen gehien kontsumo gaia. Oso esperientzia baliotsua izan zen. Izan ere, lehenengoz urrutira joan nintzen, atzerriko hizkuntza batean komunikatu beharra izan nuen... Nire alorra jorratzeaz gain, beste bizimodu bat ezagutu nuen. Praktikak Bruselan egin nituen. Europar

“Historian lehenengoz ekonomia globalizatua dugu, baina toki guztietan ez ditugu araudi eta kultura berberak”

Batasuna kontsumo araudia onartzen ari zen eta asko ikasi nuen.

Handik itzulitakoan hasi al zinen Eroskin lanean?

Hala da. Kontsumo sailean sartu nintzen. Espezializatua nengoen eta ordu-rako lan batzuk eginak nituen Eroskiren kontsumo sailarentzat.

Zure alorra goitik behera aldatu da zu hasi zinetik.

Ezer ez izatetik, egungo egoerara pasatu gara. Gure lehen lanak etiketaren ingurukoak izan ziren. Garai hartako kezka produktuaren arduraduna nor zen

zehaztea zen eta egun, dagoeneko, nutrizioari buruzko informazioa eskaintzen da etiketan. Dena den, oraindik ere 80ko hamarkadako galdera garrantzitsuenak egiten dizkiogu geure buruari: osasunarekin, segurtasunarekin eta kontsumitzaileen eskubide ekonomikoekin zerikusia dutenak dira.

Lan asko al dago oraindik egiteke?


Bai. Merkatu ekonomia globalizatu baten barne gaude eta geroz eta gehiago dakigu, baina produktuen kontrolaren eta jakien osasun bermearen inguruan asko dago egiteko. Arrisku ezak ez du existitzen. Dena den, hemen bizi-kalitate eta segurtasun maila altuak ditugu.

Askotan arriskua Txinatik bakarrik datorrela dirudi.

Historian lehenengoz ekonomia globalizatua dugu, baina toki guztietan ez ditugu araudi eta kultura berberak. Kontsumitzaileengana heltzen diren produktu guztiak seguruak direla bermatu behar dugu, baina exijentzia asko aldatzen da toki batetik bestera. Azken krisiek ate batzuk zabalik daudela irakatsi digute. Informazio asko dugu, baina baita nahasmena ere. Hori dela eta, informazio sinesgarria zein den jakiteko elementuak ezarri behar dira kontsumitzaileek erabaki zuzenak hartzeko aukera izan dezaten.

Instituzioak inplikatzeko al dira?

Kontsumitzaileen eskubideak defendatzen dituen araudi zorrotza dugu. Gainera, administrazioek eta enpresek gero eta arduratsuago jokatu dute. Marken jabeek ez dute tontakeriarik egin nahi. Dena den, horrek ez du esan nahi krisirik egongo ez denik. Krisiak kudeatzea zaila da eta gainera batzuetan komunikabideetan



Arantza Laskurain, Jon eta Guillermo
lobekin, bere familiaren etxeko
brategian.

indar handia hartzen dute. Batzuetan produktu baten partida batzuez hitz egin beharrean, jatorria aipatzen da. Ez litzateke hala izan behar.

Kontsumitzaileak kezkatzen al dira?

Orokorrean, bai. Euskal Herriko kontsumitzaileak ezagupen maila altua eta interesa ditu.

Burua erabilia kontsumitzen da.

Funtsezkoena norberak bere beharraren arabera aukeratzeko nahikoa informazio izatea da. Bakoitzak bere beharrak ditu. Batzuk emozionalak dira eta gure interesen arabera hautatzeko adina informazio izatea da garrantzitsuena.

Batzuetan informazioa kudeatzea oso zaila da, ordea. Telefono konpainien kasuan, adibidez.

Hala da. Sektore batzuk beste batzuk gardenagoak dira. Niri ere ezinezkoa zait telekomunikazio munduan konparazio bat egitea. Kontsumitzaileak denari buruzko iritzia izan behar duela dirudi, baina hori ezinezkoa da. Ezin da elikagaiez, teleko-

munikazioaz eta ingurumenaz dena jakin, esate baterako. Egun sektore batzuk gardenak dira, baina beste batzuetan alderaketa zailtzeko lan egiten ari dira. Duela 20 urte elikadura munduko etiketaz hitz egiten genuen eta egun telefonia mailakoaz ari gara. Produktu baten eta bestearen arteko konparazioa ahalbidetuko duen etiketa behar dugu.

Telefonia mundua al da ilunena?

Hala da. Erreklamazio gehienak telefonia mugikorraren inguruak dira. Gainera, kontuan izan behar da dagoeneko guztiok dugula telefono mugikorra eta hilero horretan dirua gastatzen dugula. Sektore elektrikoa ere ez da gardena. Oligopolioa da eta konpainien arteko konparazioa egitea oso zaila da.

Gaia aldatuz, emakumezkoen eta gizonezkoen artean aldeak al daude kontsumoari dagokionez?

Perfilak egin daitezke. Alde batetik, erosteko ahalmen desberdina dute. Bestetik, bakoitzak bere portaera du

produktu batean aurrean. Batzuetan prezioari ematen diogu garrantzia, beste batzuetan markari... Pertsona berberak jarrera aurrean jartzen diotenaren arabera jarrera du. Produktu batzuekin oso zorrotzak gara eta beste batzuei ez diegu garrantzirik ematen. Zorionez, konplexuak gara.

Nekazariak janariari geroz eta garrantzi gutxiago ematen diogula diote.

Emakumea lan-mundura heldu heltzeak eta denbora gutxi izateak garrantzi handia dute. Geroz eta denbora gutxiago dugunez, bizitza erraztuko diguten gauzak behar ditugu. Denok dakigu zenbait produktu oso osasuntsuak direla, baina... Bestalde, geroz eta jende gehiago bazarrik bizi da eta horrek formatuak asko aldatu ditu. Dagoeneko ez dugu 5 kiloko potea behar. Horretaz gain, lehen baino etorkin gehiago daude eta beraien jarrera bertakoen ezberdina da.

Nora goaz kontsumo maila honekin?

Horrentzako ez du erantzunik, galderak baizik. Munduaren laurdena oso ondo bizi da eta gainontzekoak geroz eta okerrago daude. Horrek argi eta garbi erakusten du gaizki gabiltzala. Eguneroko akzioek eragin handia dute. Askok gauza txikiak egiten baditugu, aldaketa bultzatu dezakegu. Hori dela eta, guztiok gara arduradun: alde batetik eredu dago eta bestetik norbanakoa. Ez gara ekintza txikien garrantziaz ohartzen: kontsumitzaileak epaile lana egiten du. Bere jarrerarekin enpresena aldatu dezake.

Gabonetan gaude eta kontsumoan aditua zara. Ba al duzu aholkurik?

Ez naiz aholku zalea. Dugunaz ingurukoekin gozatzea baino hobirik ez dago. Horri afari on bat eta tertulia on bat gehi-

Oteiza museoan, izebekin eta amarekin.



tuz gero, gure kulturak agintzen duen moduan, ezin hobe.

Kargu asko dituzu. Eguna ez al zaizu motz gelditzen?

Zorte handia izan dut. Inguruan jende oso trebea eta azkarra izan dut beti. Horri esker, egitasmo garrantzitsuak atera ditugu aurrera.

Non lan egiten duzu?

Nire bulegoa Elorrion dago, baina oso denbora gutxi ematen dut bertan. Astean behin Madrilera joaten naiz, konfederazioaren egoitza bertan baitago. Gutxiago bidaiatzea gustatuko litzaidake, baina... teknologia oso lagungarria da, baina ezin du aurrez-aurreko harremana ordezkatu.

Nolakoa da zure eguneroko bizitza?

Goiz jaikitzen naiz eta nire ordurik onenak goizekoak dira. Lana bukatzen dudanean itzultzen naiz. Zorionez, lana gustuko dut. Bestalde, ez nago ezkondua eta lanerako libre nago.

Non bizi zara?

Donostian bizi naiz. Zumarraga eta Donostia konbinazio ezin hobea dira.

Zuk Eroskirentzat lan egiten duzu eta zure etxean denda izan duzue beti. Gaiaren inguruan eztabaidatzen al duzue?

Noski. Etengabe. Zorionez etxean asko hitz egiten dugu eta guztiok pentsatzen duguna esaten dugu. Merkatarari txikien errealitatea eta banaketa formula berriak ezagutzen ditut. Merkataritza atsegin dut eta bakoitzak bere tokia bilatu behar du. Biak ezinbestekoak dira. Nire ahizpa Itziarrekin asko hitz egiten dut merkataritza. Oso arlo zaila da, oso sinplea delako. Negozio errentagarri eta lehiakorra izateko bezeroaren nahiak ase behar dira. Esatea erraza da, baina egitea... Handiek eta txiekiek euren merkatuak eta bezeroak ondo ezagutu behar dituzte.

Lan munduan arrakasta izan duzu.

Ez, ez... Atsegin dudana egin ahal izateko zortea izan dut, hori da garrantzitsuena. Eroskiren egitasmoan fedea dut eta oso gustura nago. Ez naiz handikeria zalea. Batzuo aukera batzuk eman

dizkigute eta beste batzuei ez. Eskailerak igotzeko eta jaisteko balio dute. Nire munduan honetan oso argi eduki behar da hori.

Emakumea izateagatik trabarik topatu al duzu?

Pertsonari bere generoari baino garrantzia handiagoa eman dioten bi nagusi inteligente izan ditut, baina horrek ez du esan nahi egitekorik ez dagoenik. Kristalezko sabaiak hor daude oraindik. Nik izan ditudan aukerak izatea ez da ohikoena. Elkarte eta enpresa asko ezagutzen ditut eta berdintasuna oso urrun dago oraindik. Emakumeok gure tokia bilatu behar dugu. Zenbait gauzatan ezberdinak gara eta hori kudeaketa hobetzeko lagungarria da.

Zure helburuak ase al dituzu?

Ingelesa dominatzea falta zait. Nire ahizpa Amaia irakaslea da eta ez naiz bere ikasle onena. Beste erronka batzuk ere baditut. Nire lanak etengabeko formazioa eskatzen du, jakin-min intelektuala ere badut eta bizi-egitasmoak ere baditut. Gainontzekoak geroz eta gutxiago inporta zaizkit.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Asko ditut, jakinmina baitut. Musika, ibiltzea, irakurtzea, solas egitea... asko atsegin dut. Kontzertu askotara joaten naiz eta musika mota guztiak atsegin ditut. Gehien jarraitzen dudana klasikoa da eta emanaldietara amarekin joaten naiz. Duela gutxi Donostiara joan ginen Ingalaterrako orkestra bat entzutera.

Zumarragara sarritan etortzen al zara?

Astero. Nire familia, nire lagunak... bertan daude. Ez dut lotura galdu, ezta gutxiago ere. Gauza asko eta oso onak ditut bertan.

Hemen ere argazkiak biluzik!

Dezente kosta den arren, Urola Garaiak ere badu jendea biluzik erakusten duen egutegia. Hori bai, bertako elkarteetako kideak oso lotsatiak dira eta kanpoko talde bat etorri behar izan da. Guk ingurua, atrezzoak eta argazkilariak jarri ditugu. Baita modelo bat ere! Argazkiak Legazpiko Ikatza argazkilari taldekoek atera zituzten Zumarragako Gurrutxagaazpikoa baserrian eta Ezkioko Igartubeitin eta modeloen artean Asier Auzmendi urretxuarra zegoen.

Asier Auzmendi, ingudea goran duela, bere klasekideekin. Argazkia: Ikatza.



Egutegia Gasteizen Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zientzia ikasten ari direnen ekimena da. Urtero bosgarren mailakoek argitaratzen dute eta aurten Asier Auzmendi eta Jon Ander Elgarresta urretxuarrak tartean dira. Azken hau ez da argazkietan ageri. Estibaliz

Romaratezabala legazpiarra euren irakaslea da eta, Ikatza taldekoa ere badeenez, Legazpiko argazkilarien laguntza eskaini zien. 2009rako herri-kirolen inguruko egutegia egitea suertatu da eta Carlos Mediavilla urretxuarrari esker lortu dituzte attrezzo elementuak. Mediavilla Ikatzako kidea da eta herri-kirol taldeko Xabier Zalduarekin lan egiten du.

Honek gustura asko utzi zizkien bere kirol jardunerako erabiltzen dituen tresnak eta, azkenean, argazki gehienak bere baserri inguruan atera ziren. Ganadua ere Unibertsitate-ikasleen esku utzi zuen. "Gazteei errepide ondoan biluztea axola ez bazitzaien, niri ere ez zitzaidala inporta erantzun nion Carlosi", azaldu du Zalduak. Argazkiak azaroaren 16an atera ziren. "40 bat lagun etorri ziren eta sustoa hartu nuen, ez bainuen horrenbeste jende espero", gehitu du.

Modeloek harriekin, laiekin, aizkorekin, segekin, trontzekin, lasto-fardoekin, idiekin... atera zituzten argazkiak. Hori gutxi balitz, baserriko lorategian erromeria irudikatu zuten, Igartubeitin sokatiran aritu ziren eta Zumarragako tren-geltokian gizon-proban. Zalduak Aitor Prieto koinatuaren laguntza izan zuen erremintak prestatzeko eta urduriago egotea espero zuela onartu du.

Bere abereak ere lasai egon ziren. "Idien erantzunaren beldur nintzen. Izan ere, ganadua oso berezia da usainekin eta

berehala mesfidantza agertzen du. Hori dela eta, ez nekien nola erantzungo zuten pertsona biluzien aurrean. Sekula baino lasaiago egon ziren! Beharbada idiek ere zer edo zer arraroa nabarituko zuten".

Bukatu zutenean, bisitariekin argazkia atera zuen. "Hasiera-hasieratik ni jantzita aterako nintzela esan nien. Asko ordaindu beharko lidakete lotsa galduarazteko. Gizon-proban, erdi brometan, egutegia ateratzeaz hitz egin da. Nirekin jai dutela esan diet!", azaldu du.

Gasteiztik etorritako ikasleek erakutsitako lotsa faltak Xabier Zaldua seko harrituta utzi zuen. "Larunbat goizetan jende asko pasatzen da hemendik, baina gazteek ez zuten inongo lotsarik erakutsi. Bata natu-

Asier Auzmendi:

"Lortuko dugun

diruarekin Kubara joango gara eta ipurdia belztuta itzuliko gara"

ral-natural kentzen zuten. Hotzari lotsari baino beldur handiagoa zioten! Hala ere, Mirandako ikasle bat lokatzetan gerriraino sartu zen".


Eguraldi txarra egin zuen arren, ez zen kuxkuxerorik falta izan. Lotsa sentitzeko arrazoirik zuenik bazen, hori Asier Auzmendi urretxuarra zen. Izan ere, begiluzeen herrikidea da. Ez zen kikildu. "Ez nuen zalantzarik izan, esperientzia berriak atsegin baititut. Dena den, hasieran apur bat lotsatuta geunden. Izan ere, eskola-



kideak gara eta irakaslea bertan zegoen. Dena den, gutxira etxean bezain eroso sentitu ginen. Egutegien salmentarekin lortuko dugun diruarekin Kubara joango gara eta ipurdia belztuta itzuliko gara", dio txantxetan.

Guztia oso ondo irten dela aipatu du eta Ikatza argazkilari taldeko lagunei eskerrak eman nahi dizkie. "Aurreko urteetakoek argazkilari bakarra izan dute eta aurten 12 izan ditugu gure zerbitzura. Gurekin elkar-tu baino lehen Gurrutxagaazpikoa eta Igartubeiti baserrietan eta Zumarragako geltokian izan ziren eta dena prestatuta eraman zuten. 2.000 argazki baino gehiago atera dituzte. Gure fakultatean sekula argitaratu den egutegirik onena da".

Urretxuar eta zumarragar askok egutegia ikusi dute jada, ikasleek postua jarri baitzuten Santa Lutzi egunean. Ikusi ez dutenak, erosteko garaiz dira oraindik. 8 euro balio du eta Auzmendirekin edo Elgarrestarekin harremanetan jartzea besterik ez dute.



Iñaki Zabaleta

110. street-eko geltokia

Andereñoak erakutsi zidan lerro paraleloak ez direla nehoiz gurutzatzen. Ez dut matematika zalantzan jarri nahi, baina istorio paraleloak elkar ebaki dezaketela ikasi dut, eta ez dakit nori sinetsi. Luze pentsatu ostean, Iñaki Zabaletari fede ematea erabaki dut, bere hitz bakoitzak horretara bideratu nauelako. Bestalde, zetazko oihalez eginiko lerro bat gauaren iluntasunak marrazten duen beste baten paralelo izatea ulergaitza

izan litekeen arren, pixkanaka kontatzen du idazleak hau nola litekeen posible. Izan ere, beltzak zein arrosak bularraren ezker aldean dute bihotza, eta noizbait erritmo bera izan dezakete bien taupadek. Horregatik, 110. street-eko geltokian hona eta hara bueltaka gabiltzan heinean jabetuko gara gizartea munduetan bereizteko joera badugu ere, mundu bat eta bakarra dela lurra.

Amaia Iturriotz

Marianne Faithfull

Easy come easy go

Oztopoak eta arazoak aldian-aldian gainditu izan ditu Marianne Faithfull kantari ingelesak (London, 1946). Nortasuna eta berezitasuna, nola ahotsean hala izaeran, soberan izan du betidanik 60ko musika loraldian hasi (The Rolling Stonesen altxoan hazi eta hezi zen) eta oraindik ere sasoian jarraitzen duen damak. Minbizia izan du azken oztopo. Iragan uda hasieran Donostian izatekoa zen, baina maka-

laldi baten erruz bertan behera utzi behar izan zuen kontzertua. Uste baino lehengo osatu da, ordea, eta indarberriturik agertu da plazara *Easy come easy go* izeneko diskoarekin. Jazz eta blues giro soila eta ahots sendoz kantaturiko duo ederrak (Cat Power, Rufus Wainwright, Antony, Nick Cave...). Amets urratuak aparteko dotoreziarekin.

Gorka Erostarbe



Ridley Scott

Blade Runner

Film honek klasiko etiketa jantzi zuen estreinatu eta urte gutxira eta inor gutxik eztabaizatzen du halako izendapena merezi duenik. 2019ko Los Angelesen kokatzen da istorioa. Teknologia gizakien ia berdina diren androideak sortzea ahalbidetu du. Urte apur batzuetako biziraupena dute eta eta lan nekezetarako erabiltzen dira. Rick Deckardek matxinatu den androide talde bat aurkitu eta erretiratzeko enkargua onartuko

du. Zer da, ordea, filma hain berezia egiten duena? Zientzia fikzioaren generoak pelikula honen aurretik zituen bi lan esanguratsuenak har daitezke oinarritzat erantzuna lortzeko: Kubricken *2001: a space odyssey* eta Lucasen *Star Wars*. Lehenengoaren sakontasun filosofikoa eta bigarrenaren estetika zoragarria ditu. Ostiral honetan Zelai Ariztin ikusi ahal izango da.

ButaK 21 zineklub taldea

San Mameseko lehoi berria

Mikel Balenziaga zumarragarra Athletic-en fitxaketa nagusia izan da. Bigarren B mailatik Lehen Mailara salto egin du eta, gainera, titular postua lortu du. Zintzo-Mintzoren lokalean izan da eta bizilagunek otamotz.com atarian egindako galderei erantzun die.

Anonimoa: Zer iruditu zaizu komunikabideek zurekin izan duten jarrera?

Aldaketa handia nabaritu dut. Lehen Maila beste mundu bat da. Bi astez behin prentsaurrekora joan beharra daukat. Kamara baten aurrean egoten ohitu behar izan dut. Gutxi esatekoa naiz, hala ere. Dena den, lehengusuak (Jon Balenziagak) aholkuren bat edo beste eman dit eta ondo etorri zait. Gainerakoan, prentsak orokorrean ondo tratatu nau. Dena den, gauzak esaterako orduan gehiago pentsatu behar da, ardura ere handiagoa da eta.

Sebas: Eliteko kirola eta ikasketak nola uztartzen dituzu?

Lehenengo urtetik hona, entrenamenduei dagokienez ordu kopuru bera sartzen dut. Beste presio mota bat daukat orain hala ere. Arratsaldeetan gaizki bagaude tratatzera joan beharra daukagu eta batzuetan entrenamenduak ere izaten ditugu. Ikasketei dagokienez Donostian Administrazioa eta Finantzak modulua egiten ari naiz. Abendua pasatu arte ez dut azterketarik izango. Nire denbora antolatzen ikasten ari naiz poliki-poliki.

Aitor Zaldúa Gereñu: Zer moduz hartu zintuzten Bilbon? Zer moduzko



MIKEL

BALENZIAGA

42



giroa dago San Mamesen?

Lehenengo egunetik aldagelako giroa- rekin harrিতa gelditu nintzen. Oso ondo hartu ninduten denek. Eta zaleekin ere oso gustura nago. Bilbon beste modu batera bizitzen da futbola. Gainerakoan, Algortan bizi naiz eta kalera ateratzen naizenean jendeak lehen baino gehiago ezagutzen nauela nabaritzen dut. Baina hainbesterako ere ez da: lasai-lasai ateratzen naiz kalera. Jarraitzaileei buruz gauza onak baino ezin ditut esan eta horrela jarraitzea espero dut.

Kresala: Realeko jarraitzailea izaten jarraitzen al duzu?

Bai, bai. Gainera lagunak ditut bertan. Beraiekin harremana izaten jarraitzen dut. Sanseren eta Realareb partidak jarraitzen ditut, telebistaz gehienetan, baina ahal dudanean Anoetara joaten naiz. Orain arte pare bat aldiz izan naiz bertan.

Andoni: Nolatan bukatu zenuen Athletic-en?

Athletic-en eskaintza ezustean iritsi zen. Dena oso azkar pasa zen. Diotenez Realak diru hori behar zuen eta niri profesional mailara salto egiteko aukera eman zidaten. Realean pauso hori ematea falta zitzaidan eta bazirudien aurten ere ez nuela horretarako aukerarik izango.

Ekain: Zurigorak maila mantentzeko gai izango al zarete?

Nik uste dut horretarako taldea badugula. Orain atera gara zulotik eta hementik denboraldi bukaerara ziur naiz gora egingo dugula. Konfiantza pixka bat hartu behar dugu.

Ekain: Nola ikusten duzu Urola?

Lehengusua eta koadrilako bi daude Urolan jokatzeko, baita lagun gehiago

ere. Nik uste ondo doazela. Eta horrela jarraituko dutela uste dut.

Gorka: Nola aldatu da zure bizitza Bilbora joan zarenetik?

Egunerokotasunari dagokionean ez da gehiegi aldatu. Bigarren B mailan jokatzeak bizitza programatu bat eramatea ekarri zidan: entrenamenduetara joan, zaindu, dieta egin... Daukadan denbora librea ere antzekoa da. Lagunekin egoteko denbora izaten jarraitzen dut. Asteburuetan ezin naiz beraiekin egon, baina oporrak eta festak ere hor daude. Bizilekua aldatu beharra izan dut. Iaz

“Sanseren eta Realaren partidak jarraitzen ditut, telebistaz gehienetan, baina ahal dudanean Anoetara joaten naiz”

Sanseko zazpi lagunekin bizi nintzen Donostian. Orain Algortan bizi naiz, bakarrik. Beldur pixka bat ematen zidan, inguruan jendea edukitzera ohituta bainongoen. Baina ondo moldatu naiz. Baita etxeko lanak egiterako orduan ere. Aitortu beharra daukat dena den batzuetan ama ere etortzen dela nola nagoen ikusi eta zerbaitetan laguntzera.

Ana: Athletic taldeak duen filosofia-rekin bat al zatoz?

Ados nago bai. Etxeko jokalarientzat hori garrantzitsua da, hemengo jokalarientzat aukera garrantzitsua delako. Gainontzeko taldeek bestelako filosofia

bat daramate, eta bai bat bai bestea balekoak dira. Dena den, Athletic-ek argi utzi du etxeko jokalariekin talde on bat eta futbol ona egitea ere posible dela.

Stso: Diruditen bezain harroputzak al dira Athletic-eko jokalaria batzuk?

Lehen esandako bera errepikatuko dut. Jokalariekin osoa gustura nago. Denekin primeran moldatzen naiz. Hasieratik oso ondo hartu naute taldean eta ezin dut ezer txarrik esan beraietaz. Hortaz, ez, nire iritziz ez dira harroputzak.

Josu: Nola ikusten duzu Real?

Nik uste dut talde ona dutela eta igotzeko aukera badutela. Eta hala espero dut gainera. Ea datorren urtean beste derby bat ikusteko moduan garen.

Anastasio: Zergatik musukatu zenuen Athletic-en armarrria, Realeko jarraitzaileak haserretuko zirela jakinda?

Normala da batzuei gaizki iruditzea. Baina ni orain Athletic-en nago eta ez dut besterik esateko.

Erredakzioa (E): San Mamesen jokatu zenuen lehen partida nola gogoratzen duzu? Zer sentitu zenuen?

Egia esan, zelaira atera eta halako jendetzaren animoak jasotzea, nire bizitza guztian sentitu dudana gauzarik harrigarriena izan zen. Bernabeura joan gine-nekoa ere kristorena izan zen. Zelaira ordu eta erdi lehenago iritsi ginen eta harmailak hutsik ikustea ikaragarria izan zen, benetan handia da Bernabeu. Harmailak gainezka zeudela, txikiagoa zirudien.

E: Lehen Mailan jokatzeak jokalaria handiekin jokatzeak aukera eman dizu. Errespetua ematen du?

Bartzelonaren aurka jokatzeak adibidez askori beldurra eragingo die. Nire

kasuan gehiago motibatzen dit. Orain 5 urte nork esango zidan niri Eto'oren kontra jokatu nuela? Niretzat amets bat izan da. Gainera asko eta asko idoloak ere badira. Madrilen aurkako partiduan Higuain eta Robben markatzea egokitu zitzaidan. Bartzelonan, berriz, Iniestaren aurka jokatzeko egokitu zitzaidan. Puntako jokalaria dela esan beharra dago.

E: Real eta Athletic-i buruz ari garen denbora guztian. Alderik nabaritu al duzu bi klubaren artean?

Nahikoa antzekoak direla esango nuke. Biek ere etxeko jendearekin lan egiten dute.

E: Realari dagokionez, eztabaidak kirolak baino oihartzun handiagoa hartu du. Zertan eragiten dizue horrek jokalariei?

Eragin beti eragiten du. Klub bakoitzak bere modua du gauza horiek eramateko. Beti ere hobe da, hala ere, gauzak ondo joatea bai kanpoan eta baita barruan ere.


E: Erraza al da futbol jokalaria profesionala izatea?

Gauzak egin behar diren unean egin behar dira. Egunero futbolariari dago-kion egin behar dut. Lagunekin egoteko ez dago denbora asko, baina astearte gehienetan jai izaten dut eta baita arratsalde gehienetan ere. Dena egiteko denbora daukat hortaz.

E: Zure etorkizuna nola ikusten duzu?

Momentuz Athletic-en nago eta gauzak ondo badoaz ondorengo bost urteak ere bertan emango ditut. Nik, ahal dudan bitartean, futboleko jokatzeko asmoa daukat. Futbola, jokatzeko gai ez naize-

Mikel Balenziaga, Otamotzen erredakzioan, irakurleen galderari erantzuten.



nean utziko dut. Gehiago esango dut, aurrera begira, jokalaria bizitza amaitzen zaidanean, futbol munduan jarraitu nahi dut. Nirea guztiz bokaziozkoa da.

E: Athletic-en aldageletan hitz egiten al da Realaz?

Bai noski. Garai bateko pikeak eta ahaztuta daude. Niri neuri pertsonalki inoiz ez zaizkit gustatu izan lehia horiek. Ahalik eta euskal talde gehien izan Lehen Mailan, orduan eta hobe. Nik hala pentsatzen dut eta euskal taldeetako aldageletan ere bai.

E: Euskadi-Euskal Herria eztabaida bolo-bolo dabil azken asteetan. Zuk zer iritzi duzu horren gainean?

Ez naiz horretan sartuko. Athletic-ek manifestuaren alde sinatu zuen talde


bezala. Ni ere taldean nagoenez, ba hori sinatu eta aurrera.

E: Lagun talderik egin al dizute Bilbon?

Oraingo gurasoak, lagunak eta familia San Mameseko ia partida guztietara joan dira eta oso gustura nago. Lagun taldearen inguruan zerbait entzun nuen hasieran, baina oraingo ez dute ezer antolatu.

E: Nola ikusi duzu zure burua profesional mailan eman dituzun lehen hilabete hauetan?

Hamabi partida jokatu ditut orain arte. Partida onak egin ditut, baita txarrak ere. Hamabi horietatik hamar onak izan dira eta gustura egoteko modukoa da. Aurrera begira erregulartasuna izatea gustatuko litzaidake. Egindako akatsetatik ikastea eta lana hobetzea da nire asmoa.



Alex Areizaga

Informatika

Jamendo: musika askea

Hilabete honetan jamendo.com sareko atariaz hitz egingo dugu. Musika askea biltzen duen web ataria da: copyright edo autore eskubiderik gabe saretik doan jaitsi dezakegun musika, hain zuzen. Erregistratu egin behar da musika deskargatzen hasteko, baina hau minutu batean egiten den gauza da. Behin erregistratuta, estilo desberdinetan sailkatuta aurkituko dugu musika; artista eta talde askoren ehunka diska oso. Diskak eta abestiak sarean entzun ditzakegu edota gure ordenagailura deskargatu. Guztia oso modu errexean, pausoak jarraituz. Horretaz gain, artistentzako musika sarrera igotzeko tresna egokia ere bada. Erabili eta gozatu!



Miren Arrieta

Osasuna

Etxeko ospitalizazioa

Etxeko ospitalizazioa, Zumarragako ospitaleak orain dela hilabete batzuk martxan jarri duen proiektua da. Etxeko ospitalizazioa, hitza batean esateko, ospitaleratzeari behar duten gaixoei, mediku eta erizainen zainketak etxean bertan ematea da (ospitalea etxean izatea bezala). Zerbitzu hau jaso dezaketen gaixoek ezaugarri zehatz batzuk izan behar dituzte: egoeraren iragankortasuna, gaixoaren oniritzia, familiaren oniritzia eta batez ere babesa, besteak beste. Hala ere garrantzitsua da zerbitzu honen erabilera okerra saihestea eta horretarako honako hauek kontuan izan behar dira:

- Ez da gaixotasun kronikoen jarraipen sistema.
- Ez da ambulatorioko kontsulten ordezkoa.
- Ez da gizarte-arazoak saihesteko.
- Ez da ospitalearen saturazioaren konponbidea.

Azpimarratu beharra dago gaixoaren bilakaeran, eta batez ere aldarlean, eragin oso ona duela sistema honek, eta gaixotasuna beste era batera gainditzen laguntzen du.

Bakarrizketa

Hilabete daramat sakon lo egin ezinik; edo bi, agian. Xabier txikiak gaeuz negar egiteari aspaldi utzi izanagatik, ezin dut loaren magalean garai batean bezala kulunkatu. Ezta oheratu aurretik lankide batek gomendatu zidan pilula ustez eraginkorra irentsita ere. Ez dago modurik. Eta ez dut lehengora itzul naitekeenik uste. Hori da okerrena.

Ohe berean lo egiten jarraitzen dugu Anderrek eta biok oraindik; gela ezberdinetan lo egingo bagenu ere berdintsu izango litzateke, ordea. Hasieran bezala, bion gorputzek elkarren ondoan jarraitzen duten arren, elkarrengandik kilometrotara gaudela iruditzen zait niri. Ez dakit zer iruditzen zaion Anderri, baina uste berekoak garela esango nuke. Belarrira esandako hitz goxoak eta elkarrekiko begirada maitekorrak iraganeko kontua dira, iragan urruneko kontua. Edo hala dirudi, behintzat.

Goizeko 6ak. Betiko orduan, gaur ere, iratzargailuaren txirrin hots ozena. Orduak eman ditut txirrinaren zain, iluntasunera ohitutako begiak zabalik, sabaira begira. Garai batean lozorrotik ateratzen ninduen txirrin hots gogaikarria, ohetik braustakoan altxarazten nauen eztenkada zorrotza bilakatu da azkenaldian. Egun, antzina munduan gehien gorroto nuen hotsaren zain egon ohi naizela esan daiteke. Sinestezina da gauzak zenbat alda daitezkeen hain denbora gutxian. Komuneko bidean, ez da erraza egun berri bati aurre egiten lagunduko didaten indarra eta gogoa biltzea. Ander lo dago oraindik; komuneko ispiluari begira nagoela argi entzun dezaket logelatik datorren zurrunga hotsa, Anderrek duen patxadaren isla. Sarritan pentsatu izan dut, neuretzat nahi nukeela berak duen patxada.

Urteak ez dira alferrik igaro; ez dago munduan erlojurik, denboraren joana etxeko komuneko ispiluak baino hobe neurtuko duenik. Ispiluak ez du sekula gezurrik esan,

ezta esango ere. Aspaldi utzi zenion gazte izateari, Maider, diosta azkenaldian goizero ispilu isekariak. Arrazoi du, agian. Anderren maitasun keinu eta hitz politak bakanagotzen joan ahala hasi zen ispilu lotsagabea ni iraintzen. Eta jasangaitza zait, zenbaitetan, bere barre algaren ozena. Ukabilkada batez ispilua mila zatitan apurtzea ere pasa izan zait burutik sarritan. Nahiko lan daukat, ordea, nire bihotz zartatuak bidean galtzen dituen zatitxoak etengabe lurretik jasotzen, erratzarekin ispilu birrinduaren mila zatiak komuneko zorutik biltzen hasteko. Ezinezkoa litzateke, gainera, zati guztiak jasotzea, horrelakoetan beti geratzen baita zati txikiren bat lurrean, inoiz berealdiko beiraki izandako beira apurtuaren lekuko betiereko gisa. Eta, aurrerantzean komunera oin hutsik sartzeko beldur izateaz gain, lekuko horrek berdintsu gogoraraziko lidake ispiluaren berbaldia. Alferrik, beraz.

Xabierren jaiotzak Anderren eta bion arteko harremana berbideratuko zuela uste nuen. Argi nuen, bederen, nekez berbideratuko zuela gure artekoa ezerk, Xabierren jaiotzak berbideratu ezean. Anderrek ere pozik zirudien, bizkor igaro zen haurdunaldiak iraun bederatziz hilabete-ko itxaronaldi patxadatsuan. Xabier munduratu zen unean ere, nire ondoan egon zen, atzerako keinu zirkinik egin gabe. Berezia izan zen Xabier argira bultzatzeko egin behar izan nuen naturaz gaindiko indarra Anderren eskua eta besoa estutuz orekatzea. Biok bat ginen, behingoz. Xabierren ailegaerak batu gintuen, azkenik! Edo hala uste nuen.

Gorka Azkarate

www.otamotz.com web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Xabier Zaldúa

Gurrutxagaazpikoa baserriko Xabier Zalduak 31 urte egin ditu San Tomas egunean. San Jose ikastetxean egin zituen oinarriko ikasketak, etxetik gertu, eta ondoren La Salle-Legazpin Lanbide Heziketa egin zuen. Eraikuntzan lan egin zuen, baina egun Arcerlor-Mittal enpresako langilea da. Hondeatzailearekin lan egiten du. Igande honetako gizon-proban parte hartuko du, Zumarragako taldearekin, baina aizkorarekin aritzea nahiago du. Iaz ekin zion serio eta bere ametsa egunen batean Lehen Mailara heltzea da.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Beti hondeatzaileekin, kamioiekin... ibiltzen nintzen. Beraz, egun naizena.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Aisialdia aizkorarekin entrenatzeko erabiltzen dut. Astean sei egunetan entrenatzen dut, Lazkaoko Kemen zentroak gidatuta.

Bizitzeko toki bat?

Antio.

Nolatan halako herri-kirol zaletasuna?

Gurrutxagan idi-proba zaletasuna izan da beti, baina gainontzeoak ere jarraitu dira. Umetan aitonarekin basora joan eta aizkorarekin ibiltzen nintzela gogoratzen dut. Aitarik izan ez dudanez, inork ez nau bultzatu.

Zein duzu herri-kirolik gustukoena?

Aizkora asko gustatzen zait, baina idi-proba etxeko tradizioa da.

Zer diozu gizon-probaz?

Aizkora eta gizon-proba ez dira bateragarriak eta datorren urtean ez dut parte hartuko.

Batzuek astakeria dela diote.


Egunoa ez dago duela 30 urtekoarekin alderatzerik. Tiratzen hasi aurretik, hilabete eman dugu gorputza prestatzen. Iaz ez genuen batere sufritu.

Ezkiotsaso, Legazpi eta Urretxu. Nori diozue beldur?

Denak oso ondo prestatuta helduko dira, baina argi Legazpirekin! Gogo handiarekin ikusten zaie.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.



Egindako azken oparia?

Hozka egiteko jostailua, semeari.

Eta jasotakoa?

Emazteak oparitu zizkidan aizkoran egiteko zapatilak.

Data bat?

Umea jaio zen eguna: uztailak 16.

Neska eta mutil izen bana?

Maidier eta Jon, emaztearena eta semearena.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Normalean DV.

Gustuko telebista saioa?

Telebista gutxi ikusten dut. Normalean albistegiak eta *Viajar* katea ikusten ditut.

Bereziki gorroto duzuna?

Gran Hermano.

Pelikula bat?

Rocky eta halakoak gustatu izan zaizkit.

Liburu bat?

Ez dut libururik irakurtzen, horretarako pazientzia gutxi dut.

Soinu bat?

Goizeko txori soinua.

Usain bat?

Kafe egin berriarena.

Janari bat?

Babarrunak, odolkiarekin eta gainontzeko guztiarekin.

Ura ala...

Ardoa.



Hotza hasi da eta ganbaran
baztertu udako gonak,
tenperatura epeldu digu
halere Gabonen sonak.
Sasoi honetan izaten dira
benetako zorionak
opari on bat du Olentzerok
eta turroiak amonak.
Zorionak (e)ta ondo igaro
aurtengo hontan GABONAK

URRETXU
ZUMARRAGA



IKASTOLA
Koop. Elk.

Doinua: Itsasoari begira
Bertsoa: Mikel Iturriotz
Irudia: Miren Sodupe eta Miryam Vega


Euskadi



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzen
eraikuntza

Industria
pabilioiak

Urbanizazio
lanak

**Legazpiko Olazabal Institutuaren
ondoan 6 chalet adosaturen
eraikuntza berria**